www.pasaia.eus	TELEFONIA MUGIKORRA KONTRATATZEA PASAIAKO UDALARENTZAT ETA BERE ERAKUNDE AUTONOMOENTZAT **BALDINTZA TEKNIKOEN AGIRIA** CONTRATO ADMINISTRATIVO DE **TELEFONÍA MÓVIL** DEL AYUNTAMIENTO DE PASAIA Y SUS ORGANISMOS AUTÓNOMOS **PLIEGO DE PRESCRIPCIONES TÉCNICAS**	**IFK/CIF** P2006900A **Tel.** 943 344034 **Luz./Ext.** 940 Donibane kalea, 19 20110 Pasaia **GIZA BALIABIDEAK ANTOLAKUNTZA** pertsonal@pasaia.net T030100

A) KONTRATUAREN XEDEA.

1. Baldintza-agiri honen helburua da TELEFONIA MUGIKORRA (ahotsa eta datuak) kontratatzea Pasaiako Udalarentzat eta bere erakunde autonomoak diren Pasaia Musikal eta Pasaiako Udal Euskaltegiarentzat (aurrerantzean, udala).
2. Gaur egun udalak nahikoa telefono-terminal du jabetzan bere beharrak betetzeko. Terminal guztiak edozein operadorerekin lan egiteko konfiguratuta daude (hau da, libreak dira). Beraz, lizitatzaileek ez dute terminalik edo antzeko beste gailurik eskaini behar.
3. Era berean, lizitatzaileek ez dute konponbiderik proposatu behar, telefonia finkoko sistemak eta telefonia mugikorreko sistemak integratzeko, ez sare birtual pribaturik ere, ez numerazio-plan pribaturik.
4. Inolaz ere ez da iraunkortasun-konpromisorik ezarriko kontratuaren iraupenetik haratago, ez egungo lineetarako ez etorkizuneko lineetarako. Halaber, hitzartu litezkeen iraunkortasun-konpromisoak indarrik gabe geratuko dira kontratua deuseztatzen bada, eta esleipendunek ezin izango dute kontzeptu horregatik inolako penalizazio edo errekargurik ezarri.
5. Telekomunikazioen merkatua etengabe garatzen ari denez, konponbide, zerbitzu eta tarifei dagokienez; enpresa esleipendunak automatikoki aplikatu beharko dizkio udalari ezar litezkeen hobekuntza tekniko, operatibo eta ekonomiko guztiak.
6. Kontratuaren iraunaldian linea edo zerbitzu berrien altak egiten badira, eskaintzan adierazitako banakako prezioen arabera igoko dira kontratuaren kostuak. Era berean, kontratuaren iraunaldian linea edo zerbitzuetan bajak ematen badira, dagokion murrizketa ezarriko da kostuetan.
7. Kontratuaren iraunaldian udalak eskaintzan jasota ez dagoen produkturen bat kontratatu behar izango balu (adibidez, datu-deskargaren bolumena handitzea); enpresa esleipendunak kontratatutako gainerako tarifekin bat datorren tarifa aplikatu beharko dio produktu berriari.
8. Egungo numerazioa mantenduko da, Telekomunikazioei buruzko maiatzaren 9ko 9/2014 Lege Orokorrean ezarritakoarekin bat; eta, operadorea aldatuz gero, eramangarritasuna erabiliko da. Egoera hori gertatzen bada, esleipendunak memoria teknikoan adieraziko du zer prozesu eta denbora erabiliko duen aldaketa horiek egiteko.
9. Operadore migrazioa egiten bada, edo baldintza-agiri honetan espresuki eskatzen ez den beste aukeraren bat ezartzen bada; udalak ez du inolako inbertsiorik, kosturik edo ekipamendurik bere gain hartuko, ezta horrek hobekuntza objektiboa badakar ere.
10. Migrazioetatik edo edozein motatako aldaketa tekniko edo operatiboetatik eratorritako zerbitzu-mozketak edo -murrizketak ezohikoak eta iraupen laburrekoak izango dira. Era horretako operazioetan beharrezko neurriak ezarriko dira, erabiltzaileak horietaz ohar ez daitezen.
11. Telefonia-operadoreen arteko migrazio-prozesuetatik eratorritako izapidetze administratiboan edo juridikoan edo bestelako izapidetzeetan udalaren parte-hartzea ahalik eta txikiena izango da.
12. Udalak espresuki baimentzen dituen kasuetan izan ezik, esleipendunak ez dizkio udal titulartasuneko zenbakiak hirugarren batzuei edo erakundeei emango, ezta “orri zuriak" bezalako zerbitzu edo enpresei ere.
13. Esleipendunak fakturak elektronikoki egingo ditu, "Facturae” euskarri estandarizatuaren bitartez. Halaber, sistema elektroniko bat jarriko du udalaren eskura, kontratatutako produktuak ustiatzeko, fakturaziorako, ahots-trafikoetarako, datuen kontsumorako…

14. Enpresa esleipendunak bere sistemak eraginkor mantenduko ditu 24 orduz.

15. Sare eta zerbitzu guztiak behar bezala babestuta egongo dira, baimendu gabeko edozein sarrera eta/edo informazio-ihesen aurka; eta sistemen autentifikazioa, konfidentzialtasuna, osotasuna eta integritatea bermatzeko neurriak izango dituzte. Hala badagokio, udalak enpresa esleipendunari erantzukizunak eska diezazkioke, udal zerbitzu eta sistemei eragiten dieten gorabeherak gertatuz gero.
16. Emandako zerbitzuek segurtasun-eskema nazionala bete beharko dute.
17. Eskainitako telefonia mugikorreko zerbitzuak azken belaunaldiko deien banaguneen bidez emango dira, eta horiek nazioarteko gomendioak bete behar dituzte. Esleipenduna arduratuko da sareko arkitekturaren diseinuaz; diseinu eguneratua eta indarreko teknologietara egokitua izango da, eta funtzionaltasun aurreratuenak izango ditu.
18. Bai lizitatzaileek eta bai esleipendunak hitzemango dute udal honetatik jasotzen duten informazio guztia, kontratu honekin zerikusia duena, isilpean gordeko dutela, zainduko dutela eta, enpresa horietako langileek ez dutela informazioa zabalduko, horretarako berariazko baimena izan ezean. Betebehar hori indarrean egongo da, baita kontratua bukatu edo indargabetu ondoren ere.
19. Lizitazioaren gehienezko zenbatekoa urteko 5.000 €-koa izango da (BEZ gabe), eta prezioaren modalitatea, berriz, honako hau: tarifa laua linea bakoitzeko.

B) KONTRATUAREN XEDE DIREN TELEFONIA-LINEA MUGIKORRAK

1. Egun kontratatuta dauden lineak

Egun udalak telefonia mugikorreko 77 linea ditu kontratatuta, eta horiek honela sailka litezke:

- A mota: 39 linea sistema automatizatuetarako (argiteria publikoaren kontrol-koadroak, urbiltegienak…), soilik SMS trafikoa erabiltzen dutenak. Ez dago ez ahots eta ez datu trafikorik.
- B mota:
  3 linea datu hutsekoak, ahots eta SMS trafikorik gabekoak:
  - B-I azpimota: bi linea, hilean 1,5 Gb-koak.
  - B-II azpimota: linea bat, hilean 5 Gb-koa.
- C mota: 35 ahots-, datu- eta SMS-linea; ahots-, datu- eta SMS-trafikoa duten smartphoneekin erabiltzeko.
  - C-I azpimota: 33 linea, hileko 1,5 Gb-ko datuekin.
  - C-II azpimota: 2 linea, hileko 20 Gb-ko datuekin.

2. Eskaintza onartzeko ezinbesteko baldintzak

Prezioek barne hartuko dituzte kontratua eraginkortasunez betetzeko beharrezko gastu guztiak. Tarifa horiek erreferentziatzat hartuko dira, kontratuaren iraunaldian izan litezkeen alta berrien kostuak kalkulatzeko garaian, edo izan litezkeen bajen ondorioz kontratuaren prezioa zenbatean murriztuko den kalkulatzeko.

Tarifa lauan nahitaez sartuko dira honako zerbitzu hauek 24 orduz, ezarpen-kosturik gabe, eta iraupen mugarik gabe, xede-zenbakiaren operadorea edozein dela ere:

- A mota: SMS mezu bidalketa mugatua.
- B mota: Interneteko trafikoa, ezartzen den datu-mugarekin.
- C mota: Deiak telefono finko eta mugikorretara, SMS mezuak mugarik gabe, eta Interneteko trafikoa, ezartzen den datu-mugarekin.

B eta C motetan, behin hilabeteari dagokion datu-deskarga agortu ondoren, enpresa esleipendunak ezingo du konexioa eten, eta ezingo ditu kostuak handitu; horren ordez, konexio-abiadura moteldu dezake, eta halakoetan lineak ohiko abiadura berreskuratuko du, bai udalak bonua zabaltzea erabakitzen duelako, edo bai beste hilabete bat hasten delako.

Egun eraginkor dauden lineetarako beharrezko SIM txartelez gain, enpresa esleipendunak Udalari mota ezberdinetako SIM txartel batzuk (arrunta, MicroSIM eta NanoSIM) emango dizkio,

kontratuaren iraunaldian behar diren linea berrietarako; edo aurrekoak ordezteko, laburtu, galdu edo hondatuz gero. SIM txartel horien hornikuntzak ez du kosturik izango udalarentzat. Txartelak eraginkor jartzeko prozedura ahalik eta errazena eta azkarrena izango da (adibidez, posta elektronikoaren bidez).

3.- Estaldura

Enpresa esleipendunak ahots- eta datu-estaldura izan behar du, bai Estatu barruan eta bai nazioartean, dagozkion ibiltaritza-akordioen bidez. Lizitatzaileek ahots-estalduraren mapa eguneratua izango dute udalak kontsulta dezan (herria eta azalera), eta baita 3G, 4G eta 5G-ko estaldura-mapak ere. Era berean, kontsultarako erabilgarri izan behar dituzte, halakorik izanez gero, Estatuko eta nazioarteko beste operadore batzuekin ezarritako roaming-akordioak.

Nolanahi ere, enpresa esleipendunak estaldura mugikorra bermatu beharko du udalaren areto guztien barrualdean.

Salbuespenez, sistema automatizaturen baten (adibidez, argiteriaren kontrol-koadro bat) kokapen jakin batean estaldurarik izango ez balu, udalak aukera izango du zerbitzu hori beste operadore batekin kontratatzeko. Kasu horretan kontratazio berriak sortutako gestio eta kostu guztiak udalak bakarrik hartuko ditu bere gain.

C) HARREMANA

Udalaren eta enpresa esleipendunaren arteko komunikazio guztiak azkartasunez eta arintasunez bideratze aldera, enpresak honako harremanetarako pertsonak izendatuko ditu:

- Harreman komertziala: zerbitzu berrien kontratazioaz, fakturazioaz, eskaintza eta promozioez eta aurrekontuez arduratuko da.
- Harreman operatiboa: mantentze-lanez, instalazioez, gorabeherez eta matxurez arduratuko da.

Udalak, era berean, harremanetarako pertsona bat izendatuko du, eta enpresa esleipendunari horren berri emango dio. Kontratuaren iraunaldian adostu litezkeen salbuespenak alde batera utzita, enpresa esleipendunaren eta udalaren arteko harreman komertzialak eta operatiboak soilik udalak izendatzen duen harremanetarako pertsonaren bitartez bideratuko dira.

D) ESKAINTZAK BALORATZEKO IRIZPIDEAK

Bi balorazio-irizpide erabiliko dira: eskaintza ekonomikoa eta datuak deskargatzeko gaitasuna.

1. Eskaintza ekonomikoa

Honako tarifa mota eta azpimota hauek ezartzen dira:

- A motako tarifa: SMS bakarrik.
- B motako tarifa: datuak bakarrik:
  - B-I azpimotako tarifa: Hileko deskarga-gaitasun txikia (1-3 Gb).
  - B-II azpimotako tarifa: Hileko deskarga-gaitasun ertaina edo txikia (4-10 Gb).
- C mota: ahotsa, datuak eta SMS-ak (smartphoneak):
  - C-I azpimotako tarifa: Hileko deskarga-gaitasun txikia (1-3 Gb).
  - C-II azpimotako tarifa: Hileko deskarga-gaitasun ertaina edo altua (10-20 Gb).

Gerta liteke lizitatzaileak, politika komertzialen ondorioz, deskribatutako produktu jakinen bat ez izatea (adibidez, SMS hutseko tarifarik ez izatea). Kasu horietan, lizitatzaileak udalaren beharretara hobekien egokitzen den produktua proposatu beharko du.

Eskaintzak aurkezteko, lizitatzaileek III. taula bete beharko dute (agiri honen bukaerakoa), eta horretan zehaztu beharko dituzte linea mota eta azpimota bakoitzerako eskaintzen dituzten urteko banakako prezioak. Udalak kontratatu beharreko linea guztien tarifa lauen batura erabiliko da eskaintzen balorazioaren % 80 kalkulatzeko, administrazio-baldintzen agirian ezarritakoarekin bat.

2. Datuen deskarga

III. taulan (agiri honen bukaerakoan) lizitatzaileak adierazi beharko du linea-mota eta azpimota bakoitzerako proposatutako hileko datu-deskargen gaitasuna. Udalak kontratatu beharreko linea guztien deskarga-bolumenen batura erabiliko da eskaintzen balorazioaren % 20 kalkulatzeko, administrazio-baldintzen agirian ezarritakoarekin bat.

E) MEMORIA TEKNIKOA

Eskaintzek deskribapen-memoria txiki bat izango dute (baloratuko ez dena), eta horretan honako atal hauek jasoko dira:

a) Lineak ezartzeko edo migratzeko plana, zeinean aurreikus litezkeen zerbitzu-mozketak edo -murrizketak zehaztuko diren. (Oharra: egun kontratatutako enpresak ez du atal hau bete beharko).
b) Harreman komertzialak eta operatiboak, eta bezeroen arreta: Eskaerak, gorabeherak, matxurak eta kontsultak kudeatzeko prozesuak eta bitartekoak.
c) Estaldura, agiri honen B-3 atalean adierazitakoaren arabera.
d) Lizitatzaileak kontratu honen barruan jasoarazi nahi duen beste edozein atal.

F) ZERBITZUAREN KALITATEA

1. **Erabilgarritasuna:** Zerbitzua guztiz aktibo eta abian dagoen denbora portzentajea da. Banakako linea edo zerbitzu bakoitzeko hilean % 99,9koa ezartzen da.

Ez dira kontatzen erabilgarritasunik gabeko alditzat zuzenean udalari edo hirugarren batzuei egotz dakizkiekeen denbora-tarteak.
Udalaren Informatika Arloak erabakiko ditu, aurrez enpresa esleipendunari jakinarazi ondoren, erabilgarritasunik gabeko tarteak; eta horien eragina, larritasuna eta iraupena adieraziko ditu.

2. **Estaldura:** Elkarrizketa bat izan, SMS mezuak bidali edo datuak deskargatzeko aukera dagoen lurralde-zatia. Hiri-ingurunearen eta periferiaren % 95 izango da, udal egoitzak barne; eta landa-eremuen % 80 (landa-eremurako ez da zenbatuko Jaizkibel mendiaren iparraldea).

Udalaren Informatika Arloak erabakiko ditu, aurrez enpresa esleipendunari jakinarazi ondoren, estaldura gabeko kasuak; eta horien eragina, larritasuna eta iraupena adieraziko ditu.

3. **Eskaerak eta kontsultak:** Enpresa esleipendunak edozein eratako eskaerei (altak, bajak eta aldaketak kasu) erantzuteko behar duen denbora, edo udalak egindako kontsultei erantzuteko denbora. Erantzuteko, gehienezko epe hauek ezartzen dira:
   - Linea berriaren alta: 20 lanegun.
   - Beherapena: 5 lanegun.
   - Linea aldatzea edo konfiguratzea: 7 lanegun.
   - Barneko zenbaki baten eramangarritasuna (hau da, operadore beraren arteko lineen artean): 5 lanegun.
   - Kanpoko zenbaki baten eramangarritasuna (hau da, beste operadore baten zenbakiekin): 40 lanegun.
   - Udalak eskatutako produktu, eskaintza edo bestelakoei buruzko informazioa: 7 lanegun.

   Eskaera eta kontsultei erantzuteko epeak bete ez direla ezartzeko garaian, ez dira zenbatuko zuzenean udalari edo hirugarren batzuei egotz dakizkiokeen arrazoiek eragindakoak.
   Udalaren Informatika Arloak erabakiko du, aurrez enpresa esleipendunari jakinarazi ondoren, noiz ez diren bete eskaera eta kontsultei erantzuteko epeak; eta horien eragina, larritasuna eta iraupena adieraziko ditu.

G) HARREMANETARAKO

Lizitatzaileek egoki iritzitako kontu teknikoak proposatu ahal izango dituzte, beren proposamenak hobeto egin ahal izateko; horretarako, galderak idatziz eta posta elektronikoz bidaliko dituzte helbide honetara:

informatika@pasaia.net

III. taula – Tarifa lauak eta deskargen bolumena

Motak eta azpimotak	Tarifa laua	Hileko deskarga
A motako tarifa: SMS bakarrik.		(ez adierazi)
B-I azpimota: 1-3 Gb-ko datuak bakarrik		
B-II azpimota: 4-10 Gb-ko datuak bakarrik		
C-I azpimota: Ahotsa, SMS-ak eta 1-3 Gb-ko datuak		
C-II azpimota: Ahotsa, SMS-ak eta 10-20 Gb-ko datuak		

Lizitatzaileak linea-mota eta azpimota bakoitzerako honako hauek adierazi beharko ditu: urteko tarifa laua (BEZ gabe), eta eskaintzen duen hileko datu-deskarga gaitasuna. A motarako (SMS bakarrik) ez da beharrezkoa datu-bolumena adieraztea. Eskaintzak jaso ondoren, udalak balio horiek egun kontratatutako linea kopuruaz biderkatuko ditu. Tarifa eta deskarga guztien baturak balorazio-irizpide gisa erabiliko dira, baldintza teknikoen agirian deskribatzen den moduan.